



Adjektiboa edo zenbatzailea + IRITZI DIO

- eder iritzi
- gaitz iritzi
- luze iritzi
- on iritzi
- aski iritzi

*Euskaltzaindiaren Hiztegian jasorik daude forma horiek, **aski**¹, **eder**², **gaitz**², **luze** eta **on**¹ sarreretan, azpisarrera moduan.*



eder iritzi

- Guztiek, aho batez, eder iritzi zioten buruza-giaren ateraldiari.

Justo Mokoróa, *Erraondo-ko azken danbolinteroa*. Arturo Campion-en ipuia. Bilbo, 1958

- Bere buruari eder iritzita [...] bere buruaz maitemindu zen.

«Otxolua», Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarriak, 1983.



gaitz iritzi

- On iritziko diok heure hurkoari eta gaitz iritziko diok heure etsaiari.
[Sin. gorrotatu]
- Baina entzuleei izkribuz eta papera eskuan predikatzeko era horri hain gaitz iritzi zioten, non guztia irribarre eta marmarra izan baitzen.

[Sin. gaitzetsi]

Joanes Uharte Donibanekoa, *Zientzietarako argimenen azterketa*, Klasikoak, 1996.

Euskaratzailea: Xabier Kintana



luze iritzi

- Mutilak luze iritzi zion hiru hilabeteko epeari, baina itxarotea besterik ez zuen.
Mila gau eta bat gehiago, Erein, 2002. Euskaratzailea: Patxi Zubizarreta
- Moisesen mendiko egoerari luze iritzirik haren anaia Aaronen kontra jaiki ziren.
Francisco Ignacio Lardizabal, Testamentu Zarreco eta Berrico condaira. Tolosa, 1855.



on iritzi

- Bertso hauek (...) garbizalekeriaz kutsatuta daude. Zorionez, bertsolaririk gehienek (...) **ez zioten** haize berriari **on iritzi**.

Antonio Zavala, *Nekazariak bai mixeriak*, Auspoa, 1979

- Zenbatekoa zehazteko arrazoiari **on irizten** **badio**, betearazpenaren kopurua zehaztu eta aurrera egingo du.

Katixa Etxebarria et alii, *Prozesu zibil bereziak*, UPV/EHU, 2008

OHARRA

On iritzi aditz-lokuzioarekin batera **oniritzi** izena ere badugu:

- Herriaren oniritzia. Zure oniritziarekin. Oniritzia eskatu. Oniritzi teknikoa. Oniritzi-gutuna...*



aski iritzi

- Bizkaian, sindikatuek **ez diote aski iritzi** patronalak aurkeztutako proposamen **berriari**.

Egunkaria, 2001-02-28

- Irudiak ez manipulatzeari hautatu zuen, ingurunea trikimailurik gabe iruditzen ematea, kimika fotografikoaren beraren trikimailuei **aski iritzita**.



Laburbilduz:

Adjektiboa edo zenbatzailea + IRITZI

- Aditz-elkarte arruntak eratzen dira osagaiokin.
- **DIO** erregimena dute halako aditz-elkarteek.
- Bereiz idaztekoak dira¹ osagaiok.

¹Beste hauek bezala, hain zuzen: “**Egin, eragin, eman** eta **hartu**-rekin osatzen diren aditz-elkarteak”.

Ikus Euskaltzaindiaren 25. araua, “II.1. Bereiz idaztekoak diren hitz elkartuak” atala.



Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia(1991). "A + etsi/iritzi". In *Hitz-elkarketa/3*. LEF Batzordearen lanak. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskara Institutua, EHU, "Aditz elkarteak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg

Adibideen iturriak:

- Auspoa bilduma (1961-2006)
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG) [UPV/EHU](#)
- Euskal Klasikoen Corpora (EKC) [UPV/EHU](#)
- Zuzenbide Corpora (ZCP) [UPV/EHU](#)